

## «Jaunaren Izenean Bildurik» deklarazioa SAN CARLOS BORROMEO-KO PARROKIA

Madrilgo Artzapezpikutegiaren gure parrokia isteko erabakiak pentsatzera garamatza denok geneukan itxaropena, egungo Aita-Santuak irekitze zantzuak abiatuko zituelako eta kontzilio-osteko bide berritzailea baieztatuko zuelako itxaropena, ezerezean geratzera doala. Hor daude, esaterako, Jon Sobrino-ren kontra Erromak altxatutako alarma teologikoak, eta Elizaren baitan sortzen ari diren bestelakoak. Gure parrokiak, (baztertuen parrokiatzat ezaguna), Javier Baeza, Enrique de Castro, eta Pepe Díaz apaizek zuzendua, testigantza ematen du nola beregana pertsona anitzak etorri diren, bertan *euren etxea* aurkitu dutelarik, laguntasuna eta komunitatea egitea ahalbideratu zaielarik, eta bizitzaren zentzua bilatu eta berreskuratzea zein euren nahi eta borroka gizatiarrak Jesus Nazaret-enganako fedearekin bategitea bideratu dugun.

Erritu erlijioso batzuk kunplitzeko errutinazko leku bat baino gehiago, beraz. Ez dugu Jesus Nazaret-ekoa imajinatzen, zeinak esaten zuen bere izenean bi edo gehiago bilduko diren lekuan bera dagoela, bere albotik gizatalde edo pertsona bat urrundu eta aldentzen, jakinik Jesus entzun, ezagutu, berekin egon eta bera jarraitzea bilatzen duela. Bere izaera gertutasunarena zen, jendearekin bategitearena, instintuzko abegikortasunarena, bai ahulengana, eroriengana, baztertu edo behartsuengana: bekatariak, prostitutak, atzerritarrak, etabar.

Jesus etzenuen ikusiko leku berezietan, hartara prestatutako lekuetan, ponpaz eta erreberentziaz hartuko zitzaion lekuan. Edozein leku inprobisatzen zuen. Baziren klase edo funtzio sozial nabarmen batetik etorrira beregana biltzen zirenak, bera aztertu eta nahastera. Apez Nagusiak ziren, familia aristokratikoetako Senatariak, Letratuak (saduzeo eta eskribak). Haiekin Jesus zorrotza izan zen, haien arrokeri eta hipokresiarekin, itxurak egin eta manatzeko gosearekin. Gutxien onartzen zuena erlijioaren izenean egindako gehiegikeriak ziren. Bere sententzia, «tenplua birrindu beharra dago», exegetek honela interpretatu izan dute: tenpluak, berez, ez du Jainkoarekin egoteko lekua izan behar, hare gutxiago tenpluak berak Jainko pribilegiozalea (apezentzat, noski) eta nekazarietzako zergen legitimizatailea gorpuztu duenean: «Ordua heldu da zeinean benetazko gurleek Aita izpirituan eta egian gurtuko duten» (Jn 4, 21-23).

Herriak, aldiz, legeetan ezjakina eta denek mesprextatua, pozik entzuten zuen, bere izena hitzetik hortzera ibiltzen zuen.

Poztasunez ikusten dugu Batikano II.aren «Presbyterorum Ordinis», apezpei buruzkoa, non izpiritu hau isladatzen den idazten denean presbiterak «beste gizakien artean anai artean bezela bizi dira», «ez dira Jainkoaren herriarengandik aldendu behar ezta edozein gizakirengandik ere», «ez dira euren existentziarekiko ez bizi baldintzekiko arrotz sentitu behar», «egiazki ezagutu behar dituzte», honela «San Pablo bezela dena denontzako» arituz (PO, 3), «denak gizatasun sakonez tratatuz, euren Jaunaren antzera» (PO, 6).

Presbiter edo meza-lagunen egitekoak argi daude, Batikano II.aren arabera: 1.a) euren ministeritzan aritzea Jesus aritu zen moduan, herriaren apez ta herriarentzat. 2.a) Jainkoaren Ebanjelioa denei zabaldu, baina bizitzaren egoera konkretuei egokituaz, entzuleen behar desberdinen arabera. 3.a) Jainkoaren herria sortu eta gehitu. 4.a) Fede zintzo eta aske batean berau hezitu: «Balio gutxi izango dute zeremoniak nahiz eta polit eta ikusgarriak izan, ez badira gizakiak heldutasun kristauean hezitza bideratzen». Heziketa horrek gertakariak ulertu eta komunitate bizitzan trebatzera lagundu behar die. 5.a) «Kontutan hartu beharra dute pobreak eta ahulak modu berezian dagozkiela, Jauna haiengana urbildu baitzen eta haien ebanjelizazioa egiteko mesianikoaren zeinu baita» (PO, 6).

Ez dugu ulertzen «baztertuen parrokia» hau, Ebanjelioarekin eta Batikano II.arekin bat datorrena, gure hirietako parrokia burges halamoduzko bat bihurtu nahi izatea, apezaren nagusigo estereotipatuarekin eta kultuaren inguruko erregulartasun estetikoarekin, eta komunitate honen parte-hartze zuzen eta bizia ez baloratzea. Elizkizun erromatarra bere hortan jarraitza mugatzen bagara, hiltzat ematen dugu edozein liturgiaren inguruko bizitza eta sormena. Orduan, sortzaile baino, formula liturgikoen errezipitzaile mekaniko bihurtzen gara, gure denbora, gure jendea, gure komunitatea eta gure pertsona konkretuen errealitate bizia ospakizun eukaristikora erakartzea ekiditen digularik. Zergatik ezin ditu egungo komunitate batek bere otoitz propioak sortu, lehenagoko komunitateek euren zirkunstantzia konkretuei

egokituz egiten zuten bezela? Zerk pentsarazten du orduko formulak –orduko formula partikularrak- egun bere hortan erabiliak izan behar direla, eta ezin direla berriak sortu? Esentzia –gorde beharrekoa- iraunkorra da; baina aldakorra dena, aldatzen joan behar da. Iraganeko formula eta ereduaren errepikaketa antzu eta aspergarriak eraman du, hain zuzen ere, egungo liturgiaren parte haundi bat «momia sakratu» izatera.

San Carlos Borromeo gure parrokia istera eramatearen atzean ez da zaila kontzepzio teologiko jakin bat ikustea:

- Autoritate elizkoia komunitatearen gainetik eta aparte irizten da, eta beraz, autonomia eta bere kabuz balioduna.
- Pertsona *a natura* dago ustel eta ongirako galdua.
- Pertsona eta errealtate osoa bi dimentsiotan dago: bata profanoa eta bestea sakratua.
- Osatzea, errerealizazioa, santuratzeta eta pertsonaren gobernuak ez da posible ministro sakratuen bitartekaritza gabe, haiei baitagokie egia eduki eta eramatea, santutasuna eta gobernuarekin batera.

Funtsean, pertsonaren berezko santutasuna eta ontasun ontologikoaren desjabetza bat dago, bere hausnarketarako, askatasunerako eta ardurarako berezko gaitasunen desjabetza, eta noski, bere buruarenganako desconfiantza eta bere buruaren dimisioa kanpotiko instantzien baitarengana, haiek bermatzen diotelarik bere kabuz lortu ezingo duena.

Pentsakera honek autoritatearen balore sakratua sostengatzen du, bereganako dependentzia osoa, eta edozein arbitraritate eta despotismo motarenganako justifikazioa. Agerian dago guzti honek ez duela bat egiten Batikano II.ak ezarritakoarekin: «Duintasun eta askatasun pertsonalak ez dute inongo giza legetan Kristoren Ebanjelioan baino berme haundiagorik, Eliza delarik haren gordailua. Ebanjelio honek aldarrikatzen eta zehazten baitu Jainkoaren semeen askatasuna, esklabutza oro arbuiatuz, santutzat hartzen baititu kontzientziaren duintasuna eta bere erabakien askatasuna, eta behin eta berriz aldarrikatzen baitu giza dohaien balore-berritzea Jainkoaren eta gizakien zerbitzuan. Eta honela, Elizak giza eskubideak aldarrikatzen ditu, eta onartu eta estimatzen du garaion dinamismoa, zeinetan eskubide hauek alderik alde bultzatzen diren» (GS, 41).

Erabaki honen balio eta egokitasuna epaitzerakoan Jauna eta anaiei fideltasunez jarraitzea hautatzen dugu, hurrengo oinarrietan oinarrituz:

### **1.- Kristorengana itzultzea, Elizaren ardatz sortzaile eta oinarritzko.**

Batikano II.ak berrikuntza dekretatu zuen. Berrikuntzarik gabe Eliza ihartu egiten da, eta bere antzutasunean iraganera lotuta geratzen da. Baina Elizaren erreforma ez da posible ez bada Jesusengana itzuliaz. Ez dago Elizarentzat beste etorkizunik Jesusengandik datorrena baino. Eliza haundi izan da apalki Jesus jarraitzea deliberatu duenean bakarrik. Gehiegikeria, okertzea eta fideltasun falta ikusteko ez daukagu Ebanjelioa besterik. Elizan ezarritako tradizio askok ertsitasunera besterik ezin dute eraman.

Azertu haundiz, Kontzilioak gogora ekarri zigun Elizaren zentrotasuna Jesusen pertsonarengan datzala. Eta hura jarraitzea nahi badu, Jesusi gertatutakoa munduari kontatzen jarraitu behar duela, bere irakaspena eta bere bizitza ezagutaraziz. Jesus etzen mundu hontako subirau bat izan, etzen aberatsa izan, aitzitik laborari pobre baten moduan bizitu zen, eta bere programatik mundu hontako haundimandiek (inperioa eta sinagogak) jazarri eta akabatu zuten. Gurutzean hiltzera kondenatu izana, hiritik kanpora jaurtia simaurtegi batera bezela, mundu hontako jauntxoekiko bere batera-ezintasunaren froga nagusia da. Botereagatik suntsitua, jopu mindua da Jesus, beste jopu askoren irudi, zeinak gobernatzen duten jaunengandik porrotera kondenatuak izan diren, baina eraberean Jainkoak berak babestu eta berpiztutakoa.

### **2. Erreinuaren iragarle eta zerbitzari den Elizara itzultzea.**

«Elizak Kristo eta Jainkoaren erreinua iragartzearen misioa dauka, erreinu hori herri denei zabalduz» (LG, 5). Jainkoak mundurako nahi duena, kristau ikuspegitik, Jesusen bidez egin du ulergarri. Eta Elizak, enkargu berezirik badu, hura Jesusek egindakoa zabaltzea da. Eliza ez da beraz helmuga bat bere hortan, inoiz ez. Salbazioa Jesusengandik dator, ez Elizarengandik. Harek etzuen inoiz beste Jaunik izan.

Kristok berak etzuen bere burua iragarri, eta etzuen inoiz bere buruaz predikatu, baizik eta Erreinuari buruz. Elizak, haren ikasle eta jarraitzaile, berdina egin behar du. Bere bokazioa zerbitzatzea da, ez dominatzea: «Gizateriaren zerbitzari», deitzen zuen Pablo VI.a Aita Santuak. Zerbitzu hau hau munduan bizituaz egiten du, munduaren parte sentituz eta harekin elkartzunean, «mundua Jainkoa arduratzen duen gai bakarra» baita.

### **3. Berdintasuna benetazko egingo duen Eliza demokratiko eta demokratizatzailean itzultzea.**

«Jainkoaren herriarengan komuna da partaideen duintasuna, komuna anaitasunaren dohaia; komuna perfekzioarako deia; bakarra salbazioa, bakarra itxaropena eta banaezina karitatea. Ez dago, beraz, Kristo edo Elizarengan inolako desberdintasunik, dela arraza, naziotasun, gizarte jatorri edota sexua dela medio, ez dagoelako ez judu ez greziarrik; ez menpeko ez librerik; ez gizon ez emakumerik. Zuek denok bat baitzarete Kristo Jesusengan» (Gal 3,28 gr.; 3 Kol, 11) (LG, 32). «Bada benetazko berdintasun bat denon artean duintasunari dagokionean eta Kristoren Gorputza sinestun guztien artean eraikitzeari begirako ekintza amankomunean» (LG, 32).

Elizaren demokratizazioa oinarritzeko gaia du egungo gizartearen aurrean sinesgarritasuna hartzeko. Baina demokratizazio hau ezinezkoa da anai eta berdinen arteko benetazko elkarbizitza lortu gabe. Eta helburu hau ez da lortzen presbiter apaizgoaren nagusikeriaren bidetik, pribilegioen eta baztertzearen bidetik, boterearen erpinean agertzen den botere kontzentrazio erabatekoarekin, berau hierarkiaren graduetan behera delegatzen delarik.

Bide honi ekiteko Jesusen bizitzatik abiatu beharra dago, zeinak, laikoa izanik, «apaizgo aldaketa eragin zuen» (Hb 7,12), «apez izan zen bizitza suntsiezin baten bidetik» (Hb 7,16). Jesusen apaizgoaren konstituzioa zertan datza? Ba, «bere anaiei parekidetzen dela, erukitzen dela, sufrimendua probatzen duela, bere bizitza mundutiarean ohiu eta negarrei otoitzak eskeintzen dizkiela, hau da, herriarekin bat egiten duela, haiek anai deitzeaz lotsatu gabe». Jesusen bizitza osoa bizitza apaiztiarra izan zen: gizon izateari ekin zion, pobre izateari, justiziagatik borrokatu zuen, boterearen nahikeriak txarretsi zituen, zanpatuekin bat egin zuen, haiek defendatuz, emakumeak onartu eta diskriminaziorik gabe hartu zituen, Jainkoaz eta Elizaz beste irudi bat zutenekin gatazkan sartu zen eta fideltasunagatik onartu behar izan zuen jazarria izatea eta hiritik kanpo gurtziltzatua hiltzea. *Jesusen jatorrizko apaizgo hau da historian jarraitu beharrekoa.*

Ondorioz, hau da Batikano II.ak dioena: «Bataiatu guztiak apaizgo santura konsakratuak daude» (LG, 10).

Pablo apostoluak irakatsi zuen bezela, Elizan funtzio aniztasuna dago, baina haietariko batere ez da mailan adierazten, nagusigo edo boterean. Denak dira anai-arrebak, eta ondorioz, berdinak. Egiteko hau bereziki da beharrezkoa emakumei begira, modu bikoitzean baztertuak baitira laikotzat eta emakumetzat.

Denona da ardura, komunitate eredu baten barnean, nortasun aniztasuna tarteko, nortasun hauek Izpirituak komunitatearen zerbitzuan isurtzen dituelarik. Eliza komunitario eta pluralista.

Batikano II.ak ez du Elizaren oinarria «elizgizon-laiko» eskema bikoitzean jartzen, asanblada kristauari protagonismoa, partehartzea eta ardura kentzen dion eskema hortan.

Kristau orok, gizon nahiz emakume, Kristoren funtzio hirukoitzean parte hartzen du: irakatsi, santu-arazi eta gobernatu. Elizak osoki, Jainkoaren herriak, Kristoren apaizgoa jarraitzen du, laikotasuna galdu gabe, profanoak eta ez-mundutiarrak diren eremuetan, baztertutakoen eremuan. *Apaizgo hau* da lehena eta funtsezkoa; *bestea*, presbiterrarena, ministeritza miresgarria da, baina kolektiboari zuzendua dagoen heinean ordezkaria da, sekundarioa eta zerbitzuzkoa. Presbiterra, lehenik eta behin, «Hitzaren ministro» da, denei komunikatu behar diena, ez bakarrik aldarea eta sakramentuen administrazioari dagokiona.

#### **4. Munduarekin harreman berri bat ezarriko duen Eliza sakonki gizatiarrera itzultzea.**

Elizaren munduarekiko harremanaren aldaketa Batikano II.ak bultzaturiko eraldaketetako nagusietako bat da. Asko dira Kontzilioan norabide honetan zehazten diren testuak: «munduarekiko zubiak eraikitzea», «harekin elkarrizketa ezarri nahi izatea», «bere historiarekin elkartasuna sortzea», «bere bidezidorrak propiotzat hartzea», eta abar. Elizak ebanjelizatua izateko kontzientziaren beharra adierazten zuen, egungo garaien dinamismoa errekonozitzearen beharra, eta giza erakundeen aniztasunean on, egiazko eta justu den hura entzun eta hartaz ikastearen beharra, giza eskubideak aldarrikatzearen beharra (Cfr. GS, 1, 40,42,43).

Kontzilioa zabaltzerakoan agerikoa zen munduarenganako, zientziarenganako, aurrerabidearenganako, giza baloreenganako abegi ona, zientzia eta fedearen arteko elkarlanerako deia, sorkuntzaren autonomiarekiko errespetua eta arrazoia, zientzia eta askatasunaren eskubideekiko begirunea. Zirrargarri da Pablo VI.aren hitzok gogora ekartzea: «Zuek, humanista modernoek, errekonozitu ezazue gure humanismo berria: gu ere -inor baino gehiago- gizakiaren suspergarri gara» (Pablo VI, 7-XII-1965, 8). Gauza bera adierazi zuen Juan Pablo II.a Aita Santuak bere *Dives in misericordia* entziklikan: «Egungo eta iraganeko giza pentsamenduaren korrante desberdinek teozentrismoa eta antropozentrismoa kontrajartzera jo izan badute, Elizak, aldiz, Kristori jarraiki, gizakiaren historian bategin nahi ditu, modu organiko eta sakonean. Hau da oinarritzakoa, eta ziuraski, nagusia azken Kontzilioak ezarritako Irakasbideen artean» (*Dives in misericordia*, 1).

#### **Azken hausnarketa eta ondorioak**

Zorionez, Ebanjelioa da kristauaren oinarria eta gida, edozein jarrera epaitzen duena, baita hierarkiarena ere. Edozein erabakik Ebanjelioaren arrazoi eta irizpideak hartu behar ditu kontutan. Eta ez arrazionala ezta ebanjelikoa ere erizten denean, zilegi da ez obeditzea. Obeditzen jakin beharra dago, baina baita manatzen ere.

Maila pertsonalean eta komunitate mailan bizitakoagatik, ulertzen dugu, eta arbuiatzen, autoritate elizkoiak, Madrilgo kardenalak ordezkaturak, nahierako eta zilegitasunik gabeko moduan ihardun duela.

1. Jarrera honek argi uzten du autoritate honek oinarririk gabe epaitu eta zabaldu duela San Carlos Borromeo-ko parrokia komunitateak Eukaristia benetazko liturgia katolikoaren izpiritu eta eskakizunei muzin eginez burutzen duela.
2. Erabaki hau hartzeko prozedurak jarrera urrun, mesfidati eta autoritario bat azaltzen du, berdintasun anaikideko tratua eta elkarrizketa batek eskatuko lukeenetik urrun. Autoritateak gure komunitatearen berezko erritimoa ez du ezagutzen, ez du ez entzun ez errespetatu, eta babes, laguntza eta bultzadazko zerbitzua baino arregurazko, ulergabeziak eta prepotentziak jarrera azaldu du, komunitate hontako apez eta parteideen kontra. Halako erabakia ez da onargarria ez ebanjelicoki, ez teologikoki, ez etikoki ezta juridikoki ere.
3. Onartezina da egin den balorazio bikoitza, distantziatik eta egoera ezagutu gabe, *maila sozialean* komunitatea miresgarri dela esanaz eta *maila liturgiko eta kateketikoan* desastre hutsa. Bikoiztasun hori ez da komunitatean existitzen, erabakia hartu duenaren gogoan baizik. Parrokia komunitate hontan Ebanjelioaren iragarpena funtsezkoa da, eta komunitatearen portaera argitu, bideratu eta hezitzeko balio du. Bere bitzita ez dago bere fedetik berezia, Jesusen gurtzan oinarritutako bidean baizik, egiteko kristauaren funtsezko arau honeta.
4. Nahikoak arrazoiak ditugu gure Artzaiaren epai eta erabakienganako gure desakordioa azaltzeko, eta bere fede anai-arrebenganako konfidantza eta errespetua erakustera gonbidatzeko, elkarkidetzaz azaltzera gonbidatzeko, bere asanblada eukaristikoen bizitza, arazo, sufrimendu, borroka eta itxaropenak epaitzera sartu baino lehenago, haiei sortutako dezepzioa birplanteiatu eta deitoratzera, parrokia hontan atrakzioa eta ebanjelioen motibazioa aurkitu duten jende anitzen begietara proiektatzen ari den irudi

txarra konpontzera, parrokia hau mundu gizatiar, justu eta anaikideago baten aldeko motibazio iturri izan duen jendearenganako irudi txarra konpontzera.

5. Mingarria zaigu halako bizitza adierazpenaren aurrean, hainbeste urtetako maitasun, eskuzabaltasun eta konpromisoaren ondotik, halako jarrera eta ekintza bidegabekoak pairatzea, fede anai batzuegandik ezin ulerturikoak direnak, haien misioa fedean, maitasunean eta itxaropenean batasuna sustatu eta bermatzea dela jakinik.

**Komunitate Asanbladan  
San Carlos Borromeoko Parrokiak  
hausnartu, komentatu eta onartutako deklarazioa.**

Madril, 2007ko apirilaren 1.